

Diru-iturriak

. Kultur Mix proiektuaren kostu-egitura Edozein proiektu aurrera eramateko, gastu batzuk ezinbestekoak dira. Kultur Mix elkartea denez, udalak proiektua finantzatzen du osorik, baina kostu guztiak argi eta garbi zehaztu behar dira, ebaluazio-batzordeak horiek baloratuko dituelako. Proiektuaren kostu nagusiak

1. Kostu finkoak Jarduera kopuruaren edo parte-hartzaileen arabera ez diren kostuak:

- Udalaren lokal edo espazioen erabilera (kultur etxeak, aretoak, erakusketa gelak).
- Espazio horien hornidurak (argia, ura, berokuntza).
- Elkartearen kudeaketa eta administrazio gastuak.
- Erantzukizun zibileko aseguruak.
- Webgunea eta sare sozialen mantentzea.
- Material iraunkorra (ordenagailuak, proiektoreak, soinu-ekipoak). Kostu horiek udalak ordaintzen baditu ere, proiektuaren benetako kostuaren parte dira.

2. Kostu aldakorak Antolatzen diren jardueren edo parte-hartzaileen arabera aldatzen diren kostuak:

- Tailer eta jarduera kulturaletarako materialak.
- Artista, begirale edo hizlarien ordainsariak.
- Sustapen-materiala (kartelak, esku-orriak).
- Kanpoko kolaboratzaileen garraioa eta dietak.
- Ekitaldi zehatzak antolatzeko gastuak.

3. Hasierako inbertsioa Proiektua martxan jartzeko beharrezkoa bada:

- Espazioen hasierako egokitzapena
- . • Ekipamendu tekniko edo kulturalaren erosketa.
- Irudi korporatiboaren eta komunikazioaren diseinua.

4. Eskala-ekonomiak

Kultur Mixek onura hauek lor ditzake:

- Jarduera gehiago antolatzean, jarduera bakoitzeko kostua txikiagoa izatea.

- Materialak kopuru handitan erosteagatik prezio hobeak lortzea.

5. Esparru-ekonomiak (edo hedapen-ekonomiak)

Kultur Mixek kultura-jarduera desberdinak uztartzen dituenek (musika, artea, tailerrak, topaketak):

- Baliabide berak jarduera askotarako erabiltzen dira.
- Azpiegitura bera hainbat ekitalditarako aprobetxatzen da.
- Material eta edukiak berrerabiltzen dira.

6. Gizarte- eta kultura-kostuak

Kostu ekonomikoez gain, proiektuak balio sozial handia du:

- Herriko bizitza kulturala dinamizatzen du.
- Herritarren parte-hartzea eta kohesio soziala indartzen ditu.